

<b>1.UNITATE DIDAKTIKOA: HONDAKIN TAILERRA</b>			
<b>INPLIKATUTAKO ARLOAK:</b> Natura, Gizartea eta Kultura Ingurumenaren ezagutza			
<b>GAIA:</b> Ingurumenaren zaintza	<b>MAILA:</b> LH 5-6	<b>SAIO KOPURUA:</b> 3 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. -Bigarrena gaia lantzeko unitate didaktikoak eskainiko dira. -Hirugarrena proposatzen den azken ekoizpena garatzea ikastetxearen esku gelditzen da.	
<b>IKAS-EGOERAREN MARKOIA</b>			
<b>Testuingurua:</b> Egunerokotasunean hondakin mordoak sortzen dugu eta horiek kudeatzeko Txingudiko Zerbitzuek gaia biltzeko sistema bat ezarria dute, zeina % 90 inguruko birziklatze-tasa lortzeko prestatua dagoen. Kaleetan kokatutako kolore ezberdineko edukiontzien irlatxoetan oinarritzen da, baina datuek, birziklatze-tasa % 55 baino zertxobait handiagoa dela erakusten dute. Gainera, Europako legediak 2030 urterako gutxieneko birziklatze-tasa % 60koa izatea eskatzen du.			
<b>Abiapuntua:</b> Noizbait ohartu al zara edukiontzietara hurbiltzen diren pertsonen ehuneko handi batek hondakin guztiak edukiontzi grisera botatzen dituztela? Zergatik uste duzue pertsona askok ez dutela birziklatzen?		<b>Azken ekoizpena:</b> Hondakinen tailerraren garapena, gaikako bilketaren oinarritzko informazioa eta edukiontzietara hurbildu eta birziklatzen ez duten pertsonekin izandako elkarrizketa bilduko dituen bideo bat egitea "Zergatik ez dute birziklatzen" galderari erantzunez.	
<b>PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA</b>			
Bidasoa Behereko biztanleek hondakinen kudeaketa egoki bat egiteko baliabide guztiak izan arren biztanleriaren zati handi batek ez badu bide hori aukeratzeko, ingurumenaren alorrean kontzientziarik ez dutelako da. Horregatik, herritarrekin zuzeneko kontaktua izanez hondakinen inguruko tailer hau egiteak ingurumenarekiko sentsibilizazioa pizten lagunduko du, era horretan birziklapen-tasa igoaz.			
<b>Funtsezko kompetentziak:</b> STEM eta HK			
<b>Deskriptore operatiboak</b>	<b>Kompetentzia espezifikoa</b>	<b>Ebaluazio-irizpideak</b>	<b>Oinarritzko jakintzak</b>
STEM5. Ingurumena babestean oinarritutako ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez eta kontsumo arduratsuen printzipioak aplikatuz.  HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harremanak ulertzen ditu eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.	3. Arazo-egoerak diziplinarteko proiektuen bidez ebaztea premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile bat lankidetzan sortzeko.  5. Inguruneko elementu ezberdinen arteko harremanak identifikatzea, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez kontserbatu eta hobetzeko ekintzei ekiteko.  6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea ohitura iraunkorrak praktikan jarri eta arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	3.3. Arazo bati irtenbidea emango dion azken produktu bat taldean garatzea, irtenbide ezberdinak probatuz eta tresna egokiak modu seguruan erabilia.  3.4. Emaidza komunikatzea, mezua eta formatua entzuleei egokituz, konponbidea justifikatuz eta etorkizuneko erronkak proposatuz.  5.1. Inguruneko elementuak tresna egokiak erabiliz eta ikerketa bidez identifikatu eta aztertzea, emaitzak komunikatuz.  5.2. Natura, gizarte eta kultura inguruneko elementuen arteko konexio errazak egiten eta ulertzea.  5.4. Natura eta kultura ondarea kontserbatzeko eta	C. Gizarteak eta lurraldeak  4. Kontzientzia ekosoziala  -Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak.  -Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna.  -Garapen jasangarria. Giza jarduera espazio eta baliabideen ustiaketan.  -Eredu ekonomiko berri bat: ekonomia zirkularra. Kontsumo arduratsua.

		<p>hobetzeko jarrerak balioetsi eta erakustea iraunkortasunaren aldeko ekintza bidez.</p> <p>6.1. Giza interakzioek ingurunean dituzten ondorioak kritikoki aztertzea eta bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea eta bere inguruan jakinaraztea.</p> <p>6.2. Banaka eta taldean jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean.</p>	
<b>HELBURU DIDAKTIKOAK</b>			
1. 2. (...)			
<b>METODOLOGIA</b>			
<b>Printzipioak</b>		<b>Antolakuntza</b>	
		<b>Baliabideak</b>	
<b>EBALUAZIOA</b>			
<b>Ebaluazio prozesua:</b>			
<b>Ebaluazio adierazleak:</b>			
1. 2. (...)			
<b>Ebaluazio modalitatea:</b>		<b>Ebaluazio tresnak:</b>	